

Publikoan elkarrekin eragin

- Euskal Hezkuntza sistema publiko bakarraren alde borrokatu.
- Langileon lan baldintzak defendatu.
- Langileengandik gertu.
- Jendarte justuago baten alde antolatu.

Lan baldintzen alde borrokatu:

- 2003ko lan hitzarmena berritu.
- EPEak maiztasun handiagoz burutu.
- Eros ahalmena berreskuratu.
- Ordezkoen araudia sortu.
- Bitarteko langileen eta langile finkoen lan baldintzak ahalik eta gehien parekatu.
- Ordezkoek uda puntuatu eta kobratu.
- Irakasle eta Haurreskolak Partzuergoko zerrendetan hezitzaileen lan esperientzia puntuatu.
- Gaixotasun profesionalak aitortu.
- Klaustrokide izaera onartu.

Eraiki beharreko Euskal Eskola Publikoa:

- Hezkuntza sistemaren erdigunean kokatua.
- Euskalduna, feminista, laikoa, inklusiboa, ekosoziala, unibertsala eta doakoa.
- Pedagogia feministan oinarritua, sexismoa eta indarkeria matxista gainditzeko.
- Hezkuntza publikoaren aldeko benetako plan estrategikoa duena: inbertsioa handituz, azpiegiturak hobetuz eta baliabideez hornituz.
- Euskara lehenesten duen eredu bakarrekoa.
- Erlijiorik gabekoa.
- Ikasle guztientzat plaza publikoak bermatzen dituena.
- **Denona eta Denontzat.**

Benetako inklusiorantz:

- Ikasle guztien hezkuntza eskubidea bermatu.
- Ikasle guztien beharrei erantzun egokia eman.
- Baliabideak handitu eta errealitatera egokitu.
- Kolektibo guztien esku-hartze goiztiarra bermatu.

Hezkuntza Itunari aurre egin:

- Euskal hezkuntza zerbitzu publikoak hezkuntza publikoa eta itundua berdintzen ditu. Gaur egun duguna kronifikatu baino ez du egingo.
- Publikazio progresiboa exijitu hezkuntzaren pribatizazio sistemikoari aurre egiteko.
- Segregazioaren kontrako neurri eraginkorrak eta lotesleak borrokatu, jendarte kohesioaren mesedetan.
- Ikastetxe pribatu/itunduen pribilejioekin amaitu.



GORA
EUSKAL
ESKOLA
PUBLI
KOA!